

telebista ♦ irratia

‘Sautrela’, azkenean literatur saio bat Euskal Telebistan

Bernardo Atxagaren aholkularitza eta Eroskiren babesas jaso du saio berriak

Urtzi Urkizu / Donostia

Orio ekoiztetxeak, Eroski Fundazioaren babesarekin, literatur saio bat prestatu du ETBrako. Euskaldun asko horrelako saio baten zain ziren, eta azkenean iritsi da. Lan taldea gogotsu ari da, euskal literatura ikus-entzuleari gerturatzeko asmoz.

DONOSTIAKO Okendo kultur etxean *Sautrela* saioa zenbait elkarriketa eta atal grabatu dituzte, eta toki horretan bertan aurkeztu zuten atzo ETBn astelenean estreinatuko den saioa.

ETBko zuzendari Bingen Zupiria *Sautrela* zer izango den laburtzen saiatu zen: «Literatura programa bat izango da, literatura hitzaren esanahirik eta zentzurik zabalenean hartuta». Zupiriak, era berean, saioa zer ordutan eskainiko duten azaldu zuen: astelenean gauerdian, *Sorginen laratza* saioaren ondoren, eta larunbat arratsaldean errepikapena izango da, 15:45ak aldera, *Barrebusa*-ren ondoren.

Kolaboratzaile eta lan talde zabala

Martin Ibarbiak proposa-



Hasier Etxeberria (saioaren aurkezlea), Felix Arrotajaregi (Eroski Fundazioa), Martin Ibarbia (saioa zuzendaria) eta Bingen Zupiria (ETB).

tutako proiektua da literatur saioa, eta Orio ekoiztetxe burua da *Sautrela*-ko zuzendaria. Ilusio handiz ekin dio proiektu honi Ibarbiak. «Duela bi urte eta erdi Bernardo Atxagari hurbildu nintzaionean, kezka bagenuen gazteen artean irakurtzeko zaletasun urria dagoelako. Atxagari Espainiako telebista kate batzuetan literatur saioaren bat egitea proposatu zioten, baina berak euskaraz egin nahi zuen. Bestetik, saioa egiterakoan gauza asko hartu ditugu kontuan, eta azkenean for-

mula bat asmatu dugu». Saioaren formula hori zein izango den azaldu zuen Ibarbiak: «Beti interesgune bat egongo da, gai tematiko bat, eta lehenengoa Gabriel Arestiren ingurukoa izango da. *Koaderno handia* atalean, Iban Zalduak, Gerardo Markuletak eta Juan Luis Zabalak liburu bat aztertuko dute astero. Bestetik, Hasier Etxeberria aurkezleak gure autore bat elkarriketatuko du. Eta irakurtzeaz bultzatzearen, literaturako perla batzuk irakurriko ditugu. Gure

biblioteka atalean, berriz, edozein etxetan oinarrituko diren liburuak gomendatuko ditugu».

Web orri landua

Saioak web orri bat izango du Interneten, eta astero berrituko da. Helbidea: www.sautrela.com. Saioan sartzen ez diren hainbat informazio sartu nahi dituzte web orrian, eta ikuslearen eta programaren arteko zubi bihurtu.

Sautrela saioan Mielanjel Elustondo eta Kirmen Uribe ari dira gidolari lanetan, eta errealizatzailea Iker Trebiño da. Hasier Etxeberria aurkezlea oso pozik agertu zen atzo Donostian: «Proiektua abiatuta dagoela iritsi naiz, eta nik ez dut sekula ikusi hain gauza ederrik. Arestiri buruzko erreportajea, adibidez, hunkigarria da. Une historiko baten aurrean gaude».

Saioaren izena, *Sautrela*, Bernart Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiae* liburuan azaltzen den olerki batetik hartua dago. Aurkezleak esan zuenez, izen horrek harridura pizten du, erreferentzia zuzena egiten dio literaturari eta erraz irensten da. Denborak esango du ikus-entzuleek saioa gustura irensten duten.

laburrean

Komunikabideetako erabiltzaileen eskubideei buruzko mahai-ingurua Iruñean

Nafarroako Unibertsitateko Komunikazio Fakultatean (6. aretoan) komunikabideetako erabiltzaileen eskubideei buruzko solasaldia izango da gaur eguerdiko 12:00etan. Hizlariak Alfredo Urdazi TVEko kazetari iruindarra, Consuelo Alvarez de Toledo Antena 3ko ikus-entzulearen arartekoa, Jose Iribas UPNko senadorea, Maribel Martinez-Eder Nafarroako Ikus-entzuleen Elkartearen presidentea eta Francisco Javier Perez Latre Komunikazio Fakultateko ikasketa zuzendaria izango dira.

Oihenart, Arotze eta Etxekopar 'Bertatik bertara' saioan

Maddi Oihenart, Mixel Arotze eta Mikel Etxekopar kantariak *Bertatik bertara* saioan izango dira gaur, 21:15ean, *Lurralde zilarra* diskoaz hitz egiteko. Gainera, hiru kantariak abesti bat eskainiko dute zuzenean. Bestalde, Mutrikuko Berdelaren Asteari buruzko erreportaje bat emango dute Andoni Aizpuruak aurkeztu duen saioan.

Eneko Acero surflaria 'KTM!' saioan

Musika eta surfa izango dira gaur *KTM!* saioa protagonista, arratsaldeko 19:30etatik aurrera. Kaliforniako The Zeros taldeari eginiko elkarriketa eta euren *Right Now* diskoaren abestiak entzuteko aukera izango da. Ondoren, Europako surf txapelak Eneko Acero eta Euskal Herriko Surf Federazioko teknikari Juan Garate elkarriketatuko dituzte.

Liles-Mitchell 'Boxeo izarrak' saioan

Pisu Ertaineko Munduko Txapelketako Frankie Lilesen eta Byron Mitchelen arteko lehia emango dute gaur, gaueko 00:35ean, ETB1eko *Boxeo izarrak* saioan.

Social antzokian hiru saio egingo ditu ETBk

■ 'La primera noche', 'Barre busa' eta 'Izar gazte bila' grabatuko dituzte Basauriko antzokian

Kristina Martin / Basauri

«PLATOTIK irten eta herrietara joan, telebista herritarrengana hurbiltzeko asmoz», azaldu zuen Pello Sarasolak, ETBko programazio arduradunak. Bide horretan, hain zuzen, ETBn emititzen diren hiru saio Basauriko antzokiko agertokian grabatuko dituzte datozen asteotan.

La primera noche larunbat gauerako apustua laster emitituko dute ETB2an, eta Lorena Bernalek Espainiako Miss ohiak aurkeztuko du. ETB1ean, berriz, *Izar gazte bila*, Ruth Martinezek eta Joxe Felipe Auzmendik gidatuta, eta *Barre busa* herriz herri doan kanta eta dantza saioak ere egingo dute geldialdia Basauriko antzokiko oholztan.



Ruth Martinez, Pello Sarasola, Basauriko alkate Rafa Ibarbuen eta Ixiar Oreja, atzo goizean Basaurin egin zuten prentsaurrekoan.